

Galdera

«Batxilerreko lehen urtea», «batxilergoko lehen urtea»: zein da zuzena?

Erantzuna

Bi sarrera eta bi adiera desberdin: **'batxiler'** (pertsona), **'batxilergo'** (ikasketak).

1/ Ikus dezagun zer dioen *Euskaltzaindiaren Hiztegiak* (gehiago jakiteko, egin klik esteketan):

batxiler

- 1 iz. **Garai batean, unibertsitateetan ematen zen lehen mailako titulua zuen pertsona.** *Martin de Alduntzin batxilerra.*
- 2 iz. **Batxilergoa duen pertsona.**
- 3 iz. **Batxilergoa.** *Hiru urteko batxilerra egin ondoan, fabrikan hasi nintzen lanean, hamabost urte nituela.*

batxilergo

iz. **Erdi mailako ikasketak; ikasketa horiek bukatzean lortzen den maila.** *Batxilergoa bukatu ondoren. Batxilergoa lortu, hartu, eman. Batxilergoko irakasgaiak.*

2/ Batzuetan, 'batxiler' hitza 'batxilergo' hitzaren adierarekin ere erabili izan da. Aski da gorago begiratzea 'batxiler' hitzaren 3. Adieran. Baina terminoak finkatuz joan dira, eta, gaur egun, bereizi egiten dira goian esan bezala: **'batxiler'** (pertsona), **'batxilergo'** (ikasketak).

3/ Ikus [Euskalterm](#), terminologia-banku publikoa:



Hezkuntza, Pedagogia

Hezkuntza, Pedagogia

Hezkuntza, Pedagogia

Hezkuntza, Pedagogia

Hezkuntza, Pedagogia

Hezkuntza, Pedagogia

Hezkuntza, Pedagogia

Hezkuntza, Pedagogia

Hezkuntza, Pedagogia

Hezkuntza, Pedagogia

Hezkuntza, Pedagogia

Laburtzapenak

Hezkuntza, Pedagogia

Hezkuntza, Pedagogia

Hezkuntza, Pedagogia

Hezkuntza, Pedagogia

Hezkuntza, Pedagogia

Hezkuntza, Pedagogia

Hezkuntza, Pedagogia

agregado de bachillerato

bachiller titulado

bachillerato

bachillerato artistico

bachillerato de humanidades y ciencias sociales

bachillerato tecnológico

bachillerato técnico industrial

Bachillerato Unificado Polivalente

catedrático de bachillerato

cuerpo de profesores agregados de bachillerato

inspección de bachillerato

instituto bachillerato

Instituto de Bachillerato

Instituto de Bachillerato a Distancia

libro de calificaciones de bachillerato

premios extraordinarios de bachillerato

profesor de bachillerato

servicio de bachiller

titulo de bachiller

batxilergoko agregatu

batxiler tituludun

batx.; batxilergo

arte-batxilergo

giza eta gizarte-zientzien batxilergo

teknologi batxilergo

batxilergo tekniko industrial

BBB; Batxilergo Bateratu Balioaniztuna

batxilergoko katedradun

batxilergoko irakasle agregatuen kidego

batxilergoko ikuskaritza

batxilergo-institutu ⁽⁴⁾ ; BI ⁽⁴⁾

Batxilergo Institutu; BI

UBI; Urrutiko Batxilergoko Institutu

batxilergoko kalifikazio-liburu

batxilergoko aparteko sariak

batxilergoko irakasle

batxilergo-zerbitzu

batxiler-titulu